Kaxa huts bat

Beñat Sarasola

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2007 Beñat Sarasola
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2007ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

POESIA

idatzi
mugitzeko dudan modurik
bizkorrena delako
CHANTAL MAILLARD

HILDA DAGO

Poesia hilda dago eta ni izan naiz, sarjentu jauna.
Ni nintzen kale bazterrean prest zegoena,
11:16 a.m, april 17.
Ez ezazuela gizontto hau kondenatu,
bere hatz markak topatuko zenituzten akaso,
baina ikusazu, sarjentu jauna,
gizon honek zibismoan sinesten du oraindik.
Ez ezazuela komisaldegira eraman, benetan
eraman nazazue ni, ni izan naiz.
Poesia akabatzea hain erraza balitz bezala!
Labankada bat eman nion urdailean lehendabizi
eta han utzi nuen lurrean odolusten.
Gurutze Gorrikoek salbatu zuten
azken generazioko aparatu batzuei esker.
Geroago, laranja batzuk erosten ari zela
bost tiro eman nizkion bizkarraldean.
Sarjentu jauna, ez dakit
ulertzeko gai izango zaren
baina poesia akabatzea ez da
zuk uste bezain gauza sinplea.
Ene eskuez ito behar izan dut,

zuek ailegatu arte egon naiz lepoa estutzen.
Seguru hilda dagoela ezta?
Hartu al diozue pultsua?
Benetan, ez dakit nondik atera den morroi hau.
Ez, ez ezazuela gorpua periodikoz estali;
etor daitezela kazetariak, tv-kamerak, fotografoak,
eta orkestra ttipi bat ere bai, topatzen baduzue.
Esan poesia hilda dagoela,
esan ni izan naizela.

POESIA?

Euren itsasontzia itsaso zabalean berreraiki
behar duten marinelen gisakoak gara
OTTO NEURATH

XXI. mendeko poesia ez da liburuetan
argitaratuko,
akabo hitzaurreak, argitalpen berriak, tapa
gogorragoak.
Poema argitaratugabeak eta
imajinatu ez direnak izango dira bakarrik,
poesia ez da hilko, ugalduko da etengabe
estoldetako arratoiek lotsa galdu izan balute bezala.
Poesia jalgiko da plazara,
poesiaren iraultza eta poeta zaharren haserrea.
Sarrionandia erbestetik itzuliko da halako batean
eta Moyua Plazako manifara deituko du.
Pott banda elkartuko da berriz, Juaristi eta guzti.
Han egongo dira, halaber,
Savater, Lete, Vargas Llosa, Izagirre, Volgako
Batelariak,

Bederatzi Novisimoak, Vladimir Brigadak, Lubaki
Banda.
Eta batzuek esango dute,
izpiritualki Ezra hemen dago.
Besteek,
izpiritualki Bukowski hemen dago
izpiritualki Lizardi hemen dago
izpiritualki Unamuno hemen dago.
Unamuno espainolista zen
Bukowski ez da poeta
Ezra faxisten alde jarri zen (eta zer?)
Lizardi? nor da Lizardi?
Istilu literarioa Moyua Plazan:
bultzadak, oihuak, liburuak jaurtika,
Herri eta Harri,
Paradisu Galdua,
Surrealismoaren Manifestua,
sirena hotsak, pelotazoak, zaurituak eta abar.
Baina berdin izango da
XXI. mendeko poesia XX.ekoa baino hobea izango
da,
antologiarik gabe, bildumarik gabe
poesiak hautsa galduko du.
Egile eskubideak azkenean eskubide izango dira

eta, behingoz, ez dira beteko.
XXI. mendeko poesia egingo da halabeharrez,
lau egur eta bi iltzerekin
ozeanoaren erdian barku bat egiten den bezala.

ODA POEMA BAZTERTUEI EDO DIEGESIA EREMUTIK KANPO

Estimuan zaituztet, ez pentsa.
Denborarekin poztu eta guzti
eginen zarete agian,
marginalitatean bizitzen
kultuzko pieza gisa.
Mundu guztiak behar du
derrotaturen bat bere menpe.
Zuen haserrea konprenitzen dut, bai,
beharbada izen handiko abokatu bat
kontratatu beharko zenukete, ez dakit.
Baina esan dezakedan oro zera da:
funtzio poetikoa ez dela zuenean nagusi.
Hirugarren pertsonan beharrekoak
lehenengoan ematen dituzue,
hitzak trakets erabili, topikoak errepikatu.
Sentitzen dut baina zuen baitan
ezin da topatu korrelato objektiborik,
apur bat hunki dezaketen

esaldi efektiborik sikiera.
Ez duzue desautomatizaziorik
eragiten irakurlearengan,
erritmo baldar batean
egiten duzue aurrera;
eta grabeena dena,
ez zarete inolako tradizio
literariotan txertatzen.
Estimuan zaituztet, bai,
baina zer egin nezake!
Sakonean, inbidia apur bat
edukiko dizuet akaso;
ez baitago fikzioan ere
galtzaile izatea baino
gauza makurragorik.

LEOPOLDO MARIA PANERO ETA POESIA

Leopoldo Maria Panerok bi eskumuturrak moztu zituen manikomioko tailerreko zerra elektrikoarekin. Moztu eta patiora bota zituen. Leiho ondoan odolusten ari zen bitartean, eroak, eroak zaintzen dituzten ero bikoitzak, kazetariak, estatuko presidentea, kultur ministroa, alkatea, kultur zinegotzia, kritiko literarioak, poeta gazteak, eta abar, hasi ginen agertzen patioa inguratzen zuten leihoetan. Hantxe denak esku horiei begira. Eta eskuak mugitu egin ziren, erantzun egin zuten. Hatzak eskuaren baitara bildu ziren, hatz guztiak, esku bakoitzeko hatz luzeak izan ezik.

TXORIAK

Antony & The Johnsons-en *Bird Gurhl* eta
J.A. Artzeren *Txoria txori*ren bariazioa

Txori neskatila bat naiz
Hegoak ebaki zizkidaten behin
Baina eskuetan daukat
Orain ene bihotza

Txori neskatila bat naiz
Ene hegoen bila ibili naiz denbora batez
Baina ez ditut kausitu
Ez naiz gehiago txori izango
Orain txori neskatila bat naiz

Eta txori neskatilak zerura joaten dira
Eta txori neskatilek hegan egiten dute
Alde egiten dute hegorik gabe

H

Huts-hutsean
Hutsetik hutsera
Hutsal
Hutsa ezin husbete
Hutsune hutsak
Hustu dira
Huste oro
Hustasun hutsalenak
Hutsaldi hustelenak
Hutsaltzen dira
Hutsalkeriak, huskeriak
Hutsarteen hatsekabeak
Hutsak baitira
Hutsune hutsezinak

Eta zer ginateke gu
Oteiza gimnasia erritmikora dedikatu izan balitz.

PROCESS ART: POEM Nº 1

Lehen: Aurreskua dantzatu. Ez badakizu, aldez aurretik dantza talde batean izena eman, matrikula ordaindu, klaseak jaso, jarrera ona eduki ikastaroan.

Bigarren: Egunkariko Zuzendariari sailean zure iritzi-artikulu bat argitara dezaten lortu. Mundu islamdarrean emakumeak pairatzen duen egoera salatu.

Hirugarren: Zauden zaudeneko objektuak baliatuz, Eusko Gudariak interpretatu eskuen perkusiozko kolpeen laguntzaz. Gogoan izan amaierako Gora Euskadi Askatuta! Gora! ere interpretatu behar dena.

Laugarren: Aurreko operazio bera baina Internazionala-rekin, eskuen ordez oinak erabiliz eta Gora Euskadi Sozialista! Gora! erreproduzituz amaieran.

Bosgarren: Liburua irakurtzea amaitu eta birziklatzera bota.

(Arestiko bost puntuak ordenan, segidan eta zintzotasunez osatuz gero, abracadabra, Arte Lan bat sortzen da, autoria zehatzik gabea, sortzaile-hartzaile logikaren kontrakoa, efimeroa, konprometitua, antiakademikoa, antikomertziala, antitaurinoa, antinuklearra, antimilitarra, antibiotikoa, antiklinala, abracadabra, antisorgailua.)

MAGIA

Magoak hitz magikoak esan
eta kapela zabaldu duenean,
elefante arrosa bat azaldu da
lehenik. Gero magoak
kleenex pakete bat sortu du.
50etako automobil gorri bat,
maitasuna,
erregalo paperean bilduta.
Bakero urratu batzuk
Dead Kennedysen txapa batekin.
Eta are gauza gehiago...
Kandelen halabeharraren gaineko
teoria kimiko konplexu bat.
Desioa, azukrearekin eta katilu bete.
Untxi klonatu bat, mahai gurpildun bat.
El Correorekin batera oparitzen zuten
Athleticeko aterkia.
Kiwi usaineko xanpu bat,
infinitu byte kabitzen diren brontzezko tronboia.
Euskara-euskara hiztegi bat.
Antonio Tejero esertzeko eskatzen,

esertzeko, s’il vous plaît.
Baporezko tren zahar bat.
Kemena, zoriona eta tristezia apur bat ere bai.
Gandor berde punki bat.
Zirku bat, pailazoa, funanbulista eta
lehoi zaharra eta guzti.
Gora Euskadi! jartzen duen kapela.
Piano isatsdun zuri bat.
Dantzari bat,
molde tradizionalen aldeko aldarriak egiten.
Kaxa huts bat,
matrioska batzuk.
Surf taula handi bat,
eguzkitako betaurreko horiak.
Fermin Muguruza O sole mio
kantatzen Euskal Telebistan.
Lapur bat antifaz gorriarekin.
Entierroetarako egokia den kantu goibel bat.
Tripi kadukatu bat
Panoramixen marrazkia duen kartoi puskan.
Compact Disc pirata bat
errotulagailuz jartzen duena «Confusion is Sex».
Vitoria-Gasteiz izan litekeen hiri bat.
Jose Antonio Ardanza eta bere plan laranja.

Magnetofono zahar bat
etengabe mezu bera errepikatzen duena:
«Bukatu duzu?
Zure iritzia bidali egunkarietara, goazen».
Telebista kate porno japoniarrak harrapatzen dituen
programa informatiko bat.
ISO 9001 ziurtagiria eman dioten
poema liburu kurtsi bat.
Trabesti bat ezkontzen kontra dagoena.
Juan Tamariz hor agertu da
kapelatik ezustean,
eta bi David Copperfield ere
atera ditu, eta bietako batek
atera du Txan magoa,
Txanek Splendini Houdini.
Alfred Tarski azaldu da azkenean,
arazoa konpondu nahian.
Eta horrela,
inoizko gauza posibleen desfilean.

Munduko magia eta mago
guztiak bilduta ere
garbi geratu da,
ez direla gai.

MAX BRODEN EPAIKETAN

Max Brodek bere lagunari eginiko traizioa epaitzeko elkartu dira lau adiskide-edo.

San Paulok zera esan du: Jainkoaren esana traizioaren kontra dago, eta Maxek egin beharrekoa bere lagun Franzen borondatea betetzea zen; hots, bere idazkiak sutara botatzea, San Joan egunean adibidez.

Kantek galdera erretoriko bat egin du: Pentsa dezagun Brod jaunaren ekintza orokortzen dugula, hau da, edonork traizioa egitea onartzen dugula. Orduan zer?

Aristotelesek ez du zalantzarik: Halako traizio bat ezin da inolaz ere bertutetzat hartu.

John Stuart Mill izan da azkena hitza hartzen: Ukaezina da ekintza horrek humanitatearen zoriona handitzeko egin duen ekarpena (ikustekoa izan da Kantek jarri duen aurpegia), eta honenbestez, Broden ekintza onargarria ez ezik laudagarria ere bada.

META-:

Komunera joan eta ontzian eserita
inoizko indar gehien egin du Nicanor Parrak.
Betiko kaka nardagarri horren ondotik
giltzurrunak kanporatzea erdietsi du lehenik.
Indar apur bat gehiago egin eta
begiak ere bota ditu komunetik behera,
haginak banan-banan, mingaina, eztarria.
Heste meharra, lodia, urdaila
denak ere irten dira gero.
Birikak eta bihotza.
Bihotz, bye, bye, bihotz.
Zakila, barrabilak.
Hezurrak diarrea gisa,
ez daki oraindik nola pasa den aldaka.
Eta burmuin likatsu
nazkagarri hori pasa denean
mina joan zaio ia lipar batez.
Zainak, kartilagoak, azala.
Uzkiaren bakardadea komunean.
Meta-: Autodestrukzioaren arazoak.

RAMON SAIZARBITORIA ETA AMODIOA

Goitik behera irakurriak nituen *Egunero hasten delako*, *Bihotz bi*, *Rossettiren obsesioa*, *Kandinskyren tradizioa*. Emakumea bankuan eserita zegoen, Babelia irakurtzen. Ni bertara gerturatu nintzaion, patxada eta sosegua erakutsi nahian.

Batzuetan gauzak ez dira ongi joaten, ez dago bermerik gure mundu honetan, «risk society», arriskuaren gizartea. Risk society, arriskua eta oinetakoen lokarriak solte. Risk society, arriskua eta lokarriak zapaldu nituen. Risk society, eta emakumearen aurrean ziplo erori. Aurpegia odolusten eta emakumea Babelia irakurtzen. Garrasiak, telefono deiak, anbulantzia, eta emakumea Babelia irakurtzen.

Arren, ez espero epikarik, gutxiago lirikarik. Emakumea ez zen ospitalera bisitan etorri. Risk, arriskua, emakumea Babelia irakurtzen.

UDABERRIA

Sekula burutu ez zen
Mike Tyson vs. Evander Holyfield
hirugarren borrokan bi boxeolariak
kinada alde batera eta kinada
beste aldera, guardia altuarekin,
aurkaria kolpatzeko zirrikituren baten bila.
Ez dute elkar sobera maite.
Tysonen bi crochet ondo saihestu ditu Holyfieldek
eta biak geratu dira clinch egoeran.
Tysonek ahoa Holyfielden belarrira
hurreratu duenean jendeak okerrena pentsatu du,
Don Kingek irribarre egin du disimuluz,
baina Tyson kartzelan irakurritako
liburu erlijioso haiekin oroitu-edo
eta gizakiaren berreziketaren aldeko
militanteen zorionerako,
«April is the cruellest month, breeding»
xuxurlatu dio Holyfieldi belarrira.
Hasieran harritu egin den arren,
boxeoan erantzun gabe geratzea
akabua dela akordatu eta

«Lilacs out of the dead land, mixing»
erantzun dio serioski Holyfieldek.
«Memory and desire, stirring»
Tysonen erasoa orduan.
«Dull roots with spring rain»
erreak indartsu ahoskatuz Holyfieldek.
«Winter kept us warm, covering»
Tysonek, seguru, oso seguru.
«Earth in forgetful snow, feeding»
Holyfieldek, izerdi patsetan.
Eta lehenengo txistuak Madison Square Gardenen.
«A little life with dried tubers»
Tysonek irribarrez.
«Spring surprised us, coming over Starnbergersee»
Holyfieldek etsi gabe,
baina berehala ohartu da bere okerraz.
Udaberriak ez duela dagoeneko harritzen, Evander.
Tysonek berehala jaso ditu bi besoak, alai.
Hor joan da Holyfield burumakur bere cornerrera.
Madison Square Gardeneko zalaparta egundokoa da,
apustulariak oihuka, publikoa ringera igotzekotan.
Eta espikerrak bere denbora hartuta
«The new heavyweights world champion is
Mike Tysonnnn!!!» bota duenean,

jendea txalo zaparrada izugarri batean bildu da.
Eta Tysonek zoriona zer den
konprenitu du bizitzan estreinakoz.

AMODIOAK URRATUKO GAITU

Errutinak gupidarik gabe hozka egiten duenean
Eta desioak amesten ez direnean
Eta erresumina geldiezina denean
Baina emozioak antzuak direnean
Eta bide arrotzak hartuta
gure norabidea aldatzen dugunean
Orduan amodioak
Amodioak urratuko gaitu
Berriro

Zergatik dago ohea hain hotz
Burua zure aldera jiratzen dudanean?
Ene denboraren neurria da zartatu dena
Hainbeste sikatu al da gure arteko begirunea?
Oraino erregu hau dago
Guk ahaztu ez duguna
Gure biziengatik
Amodioak urratuko gaitu
Berriro

Ene oker denak aldarrikatzen al dituzu
Zure ametsetan?
Dasta ezazu ene ahoa
Etsipenak egiten duen lez
Gauza hain ederra izanda
Bukatu al da betiko?
Amodioak urratuko gaituenean
Berriro

Love Will Tear Us Apart
JOY DIVISION

OBJEKTU GALDUAK

Horrela egiten dute negar jainkoek

Ricardo Reis

ZERU HAUEK

Petrolioarekin bezala egin zuten.
Zeru asko zegoen behiala:
bakarra, zabala, erraldoia.
Hasi ziren esplotatzen ustiatzen bainoago.
Aurrena kanaberazko etxebizitzak,
ondoren egurrezkoak, eta gero
palazioak, komentuak, eliza gotikoak,
ia Babelgo dorrea bezain etxeorratz handiak.
Eta jan eta jan, gizakia zeru
zatiak saltzen ere hasi zen.
Badakizu? zerua ez zen Brent upeletan saltzen,
metro koadroak dira zeruaren neurria.
Eta halako batean, agortu egin zitzaien,
gizakiak zerurik gabe geratu ziren,
zeru berriak asmatu zituzten.
Ordutik Zeru letra xehez idazten da
eta zeru ordea letra larriz.

HITZ EGITEKO MODU BAT

Suizidak ezin du sinetsi
bere burua (hitz egiteko modu bat da)
etxe zaharreko paretetan islaturik agertzen denean,
edo trumoi hots artean Leirek
egongelan film bat ikusten ari dela
bere hatsa entzuten duenean,
edo goizeko bostetan Leire komunera doala
suizida pasilloan kandela bat eskuan agertzen
denean
bere borondatearen kontra eta Ku Klux Klan
-ekoa ematen duen jantzi batekin,
ezin du sinetsi Leire
oihuka hasten dela ero baten antzera
eta gero, aurpegia zurbil (beste bat dirudi),
telebistetara joaten dela gertatutakoak kontatzera,
eta nola han ura ekartzen dioten erregutuz
lasaitu, arren, zuzenean gaudela!

Suizidak ezin du sinetsi:
«Hil ondoren horrela ibili beharra ere».

MIGRAZIO ERRUTINARIOAK

Hegaztien migrazio errutinarioak
Pasa dira zerutik
Pilotu suizidak dituzten bi hegazkin
Ez dira egokiak akrobaziak egiteko
Bi xentimoko txanponak
Desegin egin nahi dituzte progresoaren aldekoek
Kolunpio-triziklo-txirrista arriskutsuak
Egun nostalgiko batean bururatu zaizkio Sarari
Jonen estreinako esaldi erridikuluak
Interneteko web orrialde italiano batean aurkitu zituen
Hainbeste denboran bilatutako komikiak
Txuribeltzezkoak direla ikusi du Felipek
Zebrak, baina baita modazko jertseak ere
Ez da erraza Zoologikoetatik kanpo ikustea
Tximino zuriak
Iruzur galanta direla azaldu da egunkarietan
Telefono konpainietako eskaintzak
Letra txikiarekin batera irakurri behar ei dira
Amodiozko gutunetako promesak

Despedidetako damuak direla

Biharko kantu melankoliatsuak

Ez dute saririk erdietsiko

Kremailera elektronikoak asmatu dituzten inbentoreek

Diru laguntza gehiago eskatu dizkiete gobernariei

Aktoreek-idazleek-musikariek-artistek

Inspirazioa lortu dute

Bilboko azkeneko atrakadoreak

Zoriontsu sentitu ziren

Gora begiratu eta ikustatu zituztenean

Hegaztien migrazio errutinarioak

KANARIAK

Etxetik irten fardel txiki bat eskuan
Ordu bete, ordu bete gutxiago Kanarietan
Euririk ez, semaforoa hondaturik
Udaltzain bat, udaltzain bat gutxiago Kanarietan
Kotxeak haserre bozina joka
Otorrino bat, otorrino bat gutxiago Kanarietan
Loro bat diosala eginez kontsultan
Gor bat, gor bat gutxiago Kanarietan
Aireportu ondoko etxe salezinak maizterra du jada
Ohe bat, ohe bat gutxiago Kanarietan
Billeteak bururdi azpian
Amets bat, amets bat gutxiago Kanarietan
Esperoa itxaroten, istant hori ordu estrak sartzen
Esnatze bat, esnatze bat gutxiago Kanarietan
Ordutegi-taulari begira
Atzerapen bat, atzerapen bat gutxiago Kanarietan
Camel bat piztu hormako seinaleari so egin
Debeku bat, debeku bat gutxiago Kanarietan
Aireportuan lasterkak aurpegi hits anitz
Hegazkin-istripu bat, istripu bat gehiago
Kanarietatik

LITZATEKE

Nire gelako batek beti *litzateke* esaten du.
Andereñoak galdera bat egiten dionean,
Play Stationarekin jolasten garenean,
patioan futbol partida jokatu bitartean
litzateke esaten du. «Egokiago litzateke
Oierri pase luzeak ematea» edo
«hori profesionaletan jokoz kanpo litzateke».
Behin batean klasean asperturik geundela
litzateke guztiak kontatu genizkion,
egun bakarrean 48 bider esan zuen *litzateke*.
Izan ere berak beti du aitzakiaren bat
litzateke santu hori esateko.
Hasieran grazia egiten zigun
baina orain badakigu
bere burua nabarmentzeko esaten duela
litzateke zorioneko hori.

HISTORIAREN ESTATUAK

Jakina da Askatasunaren Estatua Frantziako Errepublikak Amerikako Estatu Batuei egindako erregalu bat izan zela. Olivier Legrand, Rouengo portuko langileak, Askatasunaren koroaren barnean zeharkatu zuen Ozeano Atlantikoa eta bere omenez marraztu zituen marrazki haiek Jean Michel Basquiatek ehun urte geroago THOR edo ASBESTOS bezalako hitzen gainean. Eta hainbestekoa izan zen amerikanoen entusiasmoa eta esker ona ze Django Dupont izeneko artistak Berdintasunaren Estatua egin eta oparitzea proposatu baitzuen apur bat geroago, deskuiduan amerikanoek hori ere esker onez hartuko zutelakoan. Baina aholkulari iluminatu horietako batek Errepublikako Presidenteari esan zion ezinezkoa zela, ezinezkoa zela metafisikoki Berdintasunaren Estatua bat egitea. Eta halaxe geratu ziren amerikanoak. Berdintasunaren Estatua gabe eta Askatasunaren estatuarekin.

PLAZARA

Gizakiak,
barkatu baina
ez dut zuengandik
ezer nahi, ezer espero.
Ez egotzi
arrotzak zaizkidan ardurak.
Ez dut nahi
zuen kontu kolekzionablerik:
ez duintasuna
ez adierazpen askatasuna
ez bizi-eskubidea.
Beraz
ez lapurtu
arren
bizitza honetako
alegrantzia behinena.

Ni,
galtzeko aukera guztiak izanda ere,
plazara jalgiko naiz
ene harrotasun eta ohorearekin,

eta toreroa akabatzen badut
planetako zezen zoriontsuena izango naiz,
zuen eskubide kolekzionable

horietako bat bera ere eduki gabe.

GU GEU

Bihotzeko xango galaia eta pikako anderea
zorigaitzez mintzo dira beren amodio hilez
Charles Baudelaire

LAUROGEIKO HAMARKADA

Laurogeiko hamarkadakoa naizela badiot
ez da Mark David Chapman
madarikatu nuelako Central Parken.
Ez Tinanmenen tankeek zapaldu nindutelako
zapaltzeko ezin modu zapaltzaileagoan.
Ez naiz laurogeiko hamarkadakoa
deskubritu nuelako heriotzaren
abizenak GIB HIES zirela.
Ez Gijonen Zamoraren golaren ondotik
jendearen gainera jauzi egin nuelako.
Ez Postdamer Platzen kapitalismoari
merezi zuen ongietorria eman niolako,
espekulatzaile domestiko baten antzo
Hesiaren zatitxoak biltzera dedikatuz.
Ezta ere Challengerrak zeruan nola
erlojuetarako ehunekoen orratzak
aldarrikatzen zituen ikusi nuelako.
Laurogeiko hamarkadakoa banaiz, bada,
ez da Ian Curtisen taula gaineko
krisialdi epileptikoak ikusi ahal izan nituelako.

Ez da Txernobilgo ahate deformatuei
eta tximeleta fosforitoei kantatu nielako
«Nuklearrik? Ez, eskerrik asko».
Ez Jacques Derridari idazten
aditu niolako Zorroagan.
Laurogeiko hamarkadakoa naizela diot
mila bederatziehun eta laurogeita lauko udaberrian
nire amak, baikortasunez hordi, bere semea
munduratzeko indar guztiak bildu zituelako.

ZU JAIO IZAN EZ BAZINA

«Zu jaio izan ez bazina ni ere ez nintzatekeen
jaioko»
esan zenidan, horrela, bat-batean
eta nik ulertu ez izanarena egin nuen.
Eta jarraitu genuen hitz egiten gauza tribialez,
negutegi efektuaz, telebistaz, horrelako gauzez.

Zineman, film bat ikusten esan zenidan bigarrenez
«Zu jaio izan ez bazina ni ere ez nintzatekeen
jaioko».
Eta nik filma jarraitzen nengoenarena egin nuen,
barre egin nuen, harridura eszenifikatu nuen,
nahiz eta filma batere ona izan ez.

Senide bazkari batean esan zenidan hirugarrenez.
«Zu jaio izan ez bazina ni ere ez nintzatekeen
jaioko»
xuxurlatu zenidan belarrira. Hotzikara sentitu nuen
zure ahotsak kilimak egin zizkidan-eta belarrian.
«Zer?» esan nizun faltsuki.

Nik ere, beste hark bezala,
ez nuen sekula «maite zaitut» esaten
eta ez nituen halako konfesioak eramaten.
Zuk bazenekien hori,
zuk bazenekien, arrebatxo.

BIHOTZAREN GEOGRAFIA

Palmera bat hazi zait ene bihotzean,
ez galdetu zergatik, noiz, nola,
baina palmera bat hazi zait bihotzean.

Palmera bat, leku sobera balu bezala
hedatzen dituena bere abarrak.
Koskor bat dut orain ene bularrean,
baina ez da kezkatzekoa,
palmera bat hazi zait-eta ene bihotzean.

Errepideak eraiki dizkidate ene bihotzean,
ez galdetu nork, zertarako, zergatik,
baina errepideak eraiki dizkidate ene bihotzean.

Errepide zabalak, garapen jasangaitzez eginikoak,
bihurgune arriskutsuak dituztenak.
Kilimak sentitzen ditut orain bihotzean,
baina ez da kezkatzekoa,
errepideak eraiki dizkidate-eta bihotzean.

Itsaso bat aurkitu didate ene bihotzean,
ez galdetu non, nork, nola,
baina itsaso bat aurkitu didate ene bihotzean.

Itsaso beltza, ilargiarekiko aske dena,
piztia beldurgarriak gordetzen dituena.
Naufragoen oihuak entzuten ditut orain bihotzean,
baina ez da kezkatzekoa,
itsaso bat aurkitu didate-eta ene bihotzean.

Inperio oso bat osatu dute ene bihotzean,
ez galdetu nork, noiz, norekin,
baina inperio oso bat osatu dute ene bihotzean.

Inperio gupidagabea, etengabe gudan dabilena,
bakearen kontra dagoena.
Oinazea sentitzen dut orain bihotzean,
baina ez da kezkatzekoa,
inperio oso bat osatu dute-eta ene bihotzean.

Bihotz ttipi bat paratu da ene bihotzean,
ez galdetu nondik, zergatik, nola,
baina bihotz ttipi bat paratu da ene bihotzean.

Taupadak ozta-ozta ematen dituena,
bihotz izatea nahiko neke ematen dizkiona.
Taupada epel batzuk aditzen ditut orain bihotzean,
baina ez da kezkatzekoa,
bihotz ttipi bat paratu da-eta ene bihotzean.

ABERATS

Ez zaigu aberasteko asko falta.
Egon hor, pazientzia apur bat,
gure aurreikuspen moderatuenak
betetzearekin nahikoa izango dugu.
Ez alde egin oraindik, ez etsi,
ez dut zoria aipatuko,
izan konfiantza nigan.
Eta gero ez da inor konturatuko,
zin dagit ez duela inork jakingo.
Nahi duzuna egingo dugu,
disimuluak dena estaliko du,
joan gaitezke Jordaniara,
Singapurrera, Brunei aldera,
irri egingo dugu hango sultanaren bizkar
eta mundu zabaleko xaloen omenez.
Kasino eleganteen albotik pasatzean
ez gaitu ezerk liluratuko,
guk betiko alkandorak jantziko ditugu,
baita tirantezko galtza laranjak ere.
Ez ditut zuk erregalatutakoak baztertuko,
ez ditugu gure ametsak arbuiatuko.

Benetan, itxaron apur batean,
ez zaitez errenditu oraindik.
Zin dagizut:
ez zaigu aberasteko asko falta.

OSTEN DIRA

Osten dira ametsak
kolore eta trazu guztietakoak.
Osten dira amoranteak,
osten diren bezala autoak
Peugeot, Opel edo Ford.
Osten dira halaber imintzioak,
maitasunezkoak, gupida erakustekoak.
Osten dira liburuak,
autolaguntzakoak, gurutzegramak egitekoak.
Osten dira, gero eta gutxiago, banketxeak
«manos arriba esto es un atraco» oihukatzen.
Osten dira, orain oroitu naiz, futbol partidak
azken minutuko penalti batekin,
txartel gorri injustu batekin,
nazio oso bat negar batean.
Osten dira, bide batez, herrialdeak
ezin konta ahala modutan.
Osten dira etxebizitzak
jabetza eskubidearen izenean.
Osten dira alegrantziak
aldaketa kimiko ezdeus baten erruz.

Osten dira, osteagatik, sagarrak
arboletatik edo dendetatik,
hegazkinak, aireportuetakoak eta jostailuzkoak.

Guk, ekibokazioz,
kaxa huts bat ostu dugu
eternitatea beharrean.

AMETSA

Oroitzen naizenean
zeru urdin bat ikusten dut,
gainbaloratuak ditugun hodei errariak
eta errieta ahantziak.
Oroitzen naizenean
zu ez zara edonor,
abesti erromantikoak ere sinets ditzakegu
promes egiten dugunean
zintzoki estreinakoz.
Jada ez dugu denboren beharrik
bizitzen jarraitzeko,
bizikleta zahar bi belarretan paraturik
eta paraje desolatu bat
zugatik ez balitz.
Amets egiten dugu baina
uholdeak ikusten ditugu kapitalean,
katu itoak, zazpi bizi
heriotza bakarrean galduak.
Flotatzeko gai ez diren baloi zulatuak,
uholdeak pasealekuetan,
uholdeak ozeanoetan.

Emakume baten etsipena
betirako errepikaturik.

Edonor zara zu.

ERREPUBLIKA BANANEROAK

Ez da erraza.
Besarkatzen nauzunean
errepublika bananero batean sentitzen naiz,
zure bilo luzeek itoko ote nauten beldur.
Begi xalo horiekin begiratzen nauzularik
nork esango luke halakorik egiteko
gai izango zinatekeenik.
Ez da erraza,
ez naiz inorekin fidatzen jada.
Nire zakila eskuetan hartu eta
aurpegia gerturatzen duzunean
okerrena pentsatzen dut.
Sukaldean sartu eta labanatzar horrekin
ikusten zaitudanean, urduri jartzen naiz.
Zergatik gidatzen duzu abiada horretan?
Zeren presa duzu?
Eta gero gainera balkoian dantza egiteko
duzun mania arraro hori...
Benetan, ez dakit zer pentsatu.
Errepublika bananero batean sentitzen naiz.

Eta barre algaraka imajinatzen zaitut batzuetan koarto ilun batean, traje beltzak eta eguzkitako betaurrekoak daramatzaten gizon misteriotsuekin.

AULKI JOKOA

Burukomina eragiten duen kaos honetan
musika geratu egin da eta denak
ziztu bizian joan dira aulki hutsen bila.
Iñaki izan da esertzen lehena,
hamazazpi urterekin ehun metroetan
Euskadiko Txapelduna izan zena.
Harrezkero urte mordo bat pasa den arren,
gaztetako sasoia galdu ez duela frogatu du.
Gero eseri dira David eta Maialen,
ez dute aulki libre bana aurkitzeko arazorik izan.
Peruk zikin samar jokatu du esertzeko lehian
Karlosi bultzakada bat eman dionean.
Karlosek, oreka galdu badu ere, azkenean
Maialenen alboko aulkian paratzea lortu du;
hemen ez dago epailerik, ez dago
NBO eta NBEko ikuskaririk.
Jaioneri bihotza erauzi zaio ia
aulki librerik ikusi ez duenean,
baina lasaitu ederra hartu du gero
bazter batean aulki txiki bat ikusi eta
beste inor baino lehen eseri denean;

orduan, bere alaba txikia agurtu du eskuarekin.
Azken aulki librearen aurrean Migelek
abantaila osoa du, bere egoera fisiko
mugatua ez da arazo izan hara iristeko,
dena ez baita lastertasuna.

Zeren ez baitakit zer gertatu zaizun,
ez duzu erreakzionatu, ez zara mugitu.
Denak aulkien bila korrika
munduan beste ezer ez zegoelakoan
eta zu plazaren erdian geldirik
ez dakit zertan pentsatzen,
hau txikitako joko bat bailitzan.
Azken aulkirantz oinez abiatu zarenerako
erabakita zegoen dena:
Migel metro erdira, esertzeko zorian.
Baina hara non aurrera egin duzun patxadaz,
halako dotoreziaz, halako lasaitasunez,
eta hara non Migel ez den eseri.
Migelek galdu egin du
munduko konpetiziorik inportanteenean;
soinekoa apur bat igo, belaunak erakutsi
eta eseri egin zara.

ARRAZOI DUZU

Arrazoi duzu, eta beraz, zurea da kexatzeko eskubide guztia. Haserretzeko arrazoi guztia, gogaitzeko eskubide guztia. Nola liteke zure senar horrek halako maitasun istorioak idaztea? Ez duzu ezer ulertzen eta ez duzu zertan ulertu behar, andere. Uste zenuen, ondo uste ere, zu ezagutzearekin batera ahituko zitzaizkiola bere maitasun istorio hain liluragarri haiek. Baina idazten jarraitu zuen, eta ez iraganean preseski, ez 3. pertsona aseptikoan, eta ez zu bezalako emakumeei buruz, emakume altuago batzuei buruz jeneralean, musika klasikoan adituak zirenak-eta. Bai, ez duzu zertan ezkutatu. Zu baino emakume perfektuago batzuei buruz idazten du zure senarrak. Jeloskor jartzeko eskubide guztia duzu, andere. Azken aldian laztan bat bera ere egin ez dizun hori, hitz politak esateko gai ez den ganorabako hori, gauza sentzilloenak ere gobernatzeko kapaz ez den inutil total hori, zer eta, maitasun istorio hunkigarriak idaztera dedikatzen da. Sariak eman dizkiote, kritika bikainak irakurri dituzu egunkarietan, idazle ospetsuenen aipamenak; eta zuk, emakume gajo horrek, ezin duzu era-

man halakorik. Eta horrela, bakarrik zaudenean, Jesukristori galdetzen diozu ea zergatik ez zintuen zapatari batekin ezkondu.

ZORIA

Kasualitateak ez gaitu laguntzen, maite,
eta itxura guztien arabera aurre-
rantzean ere ez gaitu sobera lagunduko.
Zoria ere, ez du ematen gure alde dagoenik.
«Eta guri zer?» esaten dute astroek.
Yin Yang-a bezala, haiek ere
ez omen dira ondo moldatzen gurean.
Onar dezagun, Goliaten kontra
mila bider borrokatuta ere
ez genuke sekula batailarik irabaziko.
Guregatik balitz, maite,
ametsak ere aurreztuko genituzke
humanitatearen 673075339130 kontu korrontean.
«Uztazu, igual da, ez du axola, beste batean» eta
abar.
Iruditzen zait dena dugula gure kontra.

Ez dakit baina, batzuetan pentsatzen dut
agian horregatik izango garela hain koldarrak,
maite.

ARRAINA

Arrain laranja bat erregalatu zidaten
umetan urtebetetze egunez.
Bost urte-edo izango nituen garai hartan,
inozentzia apur izango nuen seguru aski,
ze nik uste bainuen arrain hori zela
unibertsoko arrain laranja bakarra.
Zarautz eta Landen tartean kokatzen zen
nire unibertsoa, baina oraingoa baino,
infinitua eta irudika ezina delarik ere,
askoz ere handiagoa zen.
Ez nuen egundo halako arrainik ikusi,
arrandegikoak zilarrezkoak,
zuriak edo marroiak izaten ziren,
han ez zegoen arrain laranjarik.
Egun batez, ama ontziko ura aldatzen ari zela,
uretatik salto egin eta harraskan behera
joan zen nire arrain maitagarria.
Handik aste batzuk barru gurasoak
ikusi nituen etxean aurrera-atzera,
kaxa handi bat besoetan, ezkutuan bezala.
Ez nion garrantzirik eman, egia esan,

baina egun hartan bertan
arrain laranja topatu nuen berriz,
orain bañerako uretan igerian.
Tuberien labirintoan ibiliko zen
arrain gizajoa, noraezean,
halaxe kontatu zidaten gurasoek,
eta azkenean bainerako zuloa aurkitu
eta horrela iritsiko zen atzera gurera.
Urte batzuk geroago, pentsatzen jarrita,
gauzak modu diferentean ikusi nituen.
Orduan ohartu nintzen:
problema ez da ez Olentzero,
ez Meltxor, Gaspar edo Baltasar,
ezta Perez sagua ere.

PETER PAN SINDROMEA

Ume garaiak oroitzeko modu asko dago.
Batzuek trasterotik mekano zaharrak
berreskuratzen dituzte, eta puzzleak,
100 piezatakoak, 200ekoak...
Eta iruditzen zaie ez direla
puzzle horiek atzera osatzeko gai,
metalezko xafla horiekin
helikopteroak eraikitzeko gai.
Euren miseria ikusten dute aurrez aurre.
Beste batzuk ikastola zaharreko
patiora joaten dira eta begi-bazterrez
porteriei behatzen diete.
Edo supernintendoa pizten dute berriz eta
atzamar lodi gorrituez oroitzen dira,
mandoari indarrez sakatzez minberatutakoak,
eta horri bizio deitzea txistea iruditzen zaie orain.
Argazki bilduma zaharrak hautsetatik atera
ezein garai iraganeko hobea dela konturatzeko.
Badira jostailu dendetara
lantzean behin sartzen direnak ere,
jostailu berriak begiratzen jarduten dute,

eta bat-batean konturatzen dira
zenbat zahartu diren denbora gutxian.
Nik uzkiko ileak kentzen ditut
umetasun pixka bat sentitzeko.

BIDE BATEZ

Bide batez gauzak esaten ibiltzea
ez da ez fundamentua,
gehiago da hondakin erradiaktiboa.
Baina esadazu bide batez
zer moduz dagoen
bonbilla fundituak ohe-kidetzat edukitzea,
kalerako bide bakarra leihotik beherakoa dela
sentitzea,
tokata zaharrik ez kausitzea,
biniloak dekoratzeko soilik balio izatea,
jarraitzea beste irtenbiderik ez dagoela ohartzea.
Esadazu ahapeka ea
baporezko trenak lastertasun handikoak bihurtu
diren,
behialako titareak gaurko jostorratzak ote diren,
putetxe batetik ordaindu gabe aldegitea haizu den
edo banketxe batetik sakela beterik irtetea.
Garagardoa plastikozko botiletan
saltzen duten honetan, esadazu
zer demontre egingo dugun
ozono geruzako zuloa handiegia izan eta

mundua sodomizatzea ezinezkoa denean,
haizeak hiztegi bat ireki eta
orriko lehen hitza *bart* dela ikustean.
Esadazu bide batez
honek guztiak sentidurik ba ote duen,
negar zotinka aritu eta
hegoaldean egarriz hiltzen direla jabetzean
zergatik egiten duzun oraindik negar gehiago,
zergatik pertsiana hertsiak baino ez dituzun ikusten,
tinta gabeko bolalumak baino ez dituzun kausitzen,
izotz puskak esku artean ez zaizkizun jada urtzen.
Esadazu otoi, bide betez bada ere,
nitaz akordatu zaren inoiz.

ZIGARROKINA

Last Night When We Were Young
HAROLD ARLEN / E.Y. HARBURG

Bart, gazteak ginenean,
ematen zuen
munduko magia guztia
guretzat baino
ez zegoela egina.
Beste mundu guztia
kolore horiari,
katu beltzei,
gaizki egokitutako
eskailerei
errua botatzen ari zen
bitartean,
gazteak ginen
bart.

Bart, gazteak ginenean,
ez genuen presarik,

ordularietako orratzekin
belaontzietako mastak
egin genituen.
Bart, gazteak ginenean
ez genuen
gure gaztetasuna
aldarrikatzeko premiarik.

Bart, gazteak ginenean,
zeharo borobila zen mundua
eta hogei metro koadrotan
kabitzen zen.
Bart, gazteak ginenean,
gazteak ginen,
eta gauza askoz gehiago
ere bai.

Gaur goizean, aldiz,
zure Ducados paketea
ikusi dudanean,
zigarro bat falta dela
ohartu naiz,
baina hala ere
ez dagoela

zigarrokinaren arrastorik
hogei metro koadro
karratu hauetan.

MUNDUAREN EGOERA

Jende guztiak gordetzen du
joandako amodioetako
oroitzapen baliagarriren bat.
Keinu bat agian,
itsasertzeko irudi bat,
melodia epel bat
besterik ez bada.
Gerra dorpeenetan ere
beti erdiesten bide da
akordu eredugarririk.
Baina esan didate horretan ere
zu ez zarela
gainontzeko guztien lakoa.
Iragana suntsitzeko gai zarela
inolako ausikirik izan gabe gero.
Ahanztura borondatezkoa dela zuregan,
presentean atxikirik,
ez dituzula jada
nik kutsatutako hitzak erabiltzen,
«entrañablea» edo «lelo» adibidez.
Non laga dituzu behialako arropak?

Zein koloretako kontainerretan
bota dituzu plastikozko lore ximeldu haiek?
Zein ispilutan konprobatzen duzu orain
munduaren egoera?
Istant honetan bertan
non zara?
zer ari zara ospatzen?

Ni?
Ni hemen naiz,
hemen egongo naiz,
zure balizko musuak
masailean karminez pintatzen.

BLAKI

Blaki omen da bere lagunik leialena,
hori esan dit lehen Mariak.
Berak ba omen daki
Blakik ez duela inoiz traizionatuko,
Blaki ez da gaiztakeriak egiteko gauza,
ez da batere extrabagantea,
ez ditu haserrealdi ulergaitzak izaten,
ez du atzo «seguru» eta
gaur «ez dakit» esaten.
Ez ditu, ezta ere, justifikazio
absurdu eta sinesgaitzak asmatzen.
Makila bat bota ezkero
ziur da haren bila joango dela.
Blakik ez du egun txarrik izaten,
baina ez pentsa tontoa denik
esan dit Mariak.
Ordu biak aldera
sukaldean sartzen naizenean,
Blaki beti gerturatzen zait
buztana alde batera-bestera
badakielako jateko garaia iritsi zaiola.

Txakur hau ez da batere tontoa,
txakur honek ematen dit
beste inork ematen ez didan zoriona.
Hori guztia esan dit Mariak

Baina nik agintzen dizut
zu maitatzen zaitudala gehien oraindik.

BIZIKLETAZ

Heldu eskutik,
goazen bizikletaz hondartzara,
ekarri arrosa koloreko kometa,
ekarri pintura eta koadernoak.
Goazen pintatzera lakuak,
herensugeak, tximinia duten etxetxoak.
Margotu dezagun etorkizuna,
egin ditzagun figurak harean,
hitz egin dezagun zeruari begira,
hitz egin dezagun koloreei buruz,
irribarreez, malkoei buruz, libertateaz.
Eta egin dezagun mundu berri bat
marea igo baino lehen,
mundu berri bat hareazko figurez
eta marrazturiko pinturez.
Atondu orrialdeak eta harea,
eta itxoin dezagun atzean eta
begira dezagun itsasoa aitzinatzen,
ezarian-ezarian gerturatzen.
Eta ikusiko dugu nola olatuek
gure mundua itotzen duten,

baina gu triste jarriko ez garenez
itsasoak atzera egingo du
eta bihar berriro hondartzara
itzuliko gara bizikletaz.
Behin bakarrik bada ere,
heldu eskutik,
goazen bizikletaz hondartzara.

AZKENAK ERE EZ DITU NAZIOARTEKO ITUNAK ERRESPETATZEN

Pentsa, momentu honetantxe
auskalo non (gutxienekoa da hori)
batzuk, zu eta ni bezalaxe,
elkarri begira egonen dira isilik
baina ez horregatik zer esan ez dakitela.
Bien arteko distantzia hori
minez josirik egonen da
eta handik igarotzea suizidioa litzateke,
estatistiken arabera %99’9an hain zuzen.
Anonimo horiek begiak bustirik izanen dituzte
eta konturatuko dira, onartuko dute
gauzak aldatzen direla, pertsonak aldatzen direla
baina azkenean inork ez dakiela zer geratzen den,
azkenera berandu heltzen garelako denok,
mina-eremua garbi dezaten itxoiten dugula beti.
Eta ordurako azkenak ihes egin du
mina sorta galanta lagata bere gibelean.

Eta bitartean, auskalo non,
batzuk elkarri begira
egonen direla otuko zaie,
eta bien arteko distantzia hori,
haiena bezalaxe, geurea bezalaxe,
minez josirik egonen dela.

MATERIAL CULTURE

Lurpean aurkitzen zaituztenean, hilotz,
esango dute hona hemen Homo Sapiens,
ez askoz gehiago.
Hara bizkarrezur segmentuduna,
pelbis zabal bat.
Hara garezur handia hagin txiki batzuekin.
Begiak aurpegiaren erdialdean
ikusmena handituz.
Batez bestekoa baino altuagoa:
metro eta hirurogeita hamar.
Agian museoren batera eramango zaituzte,
baina ez da izango
maitatzeko zenuen modu eder horregatik,
lotsatzean egiten zenuen keinu horregatik.
Ez dituzte aintzat hartuko zure
eskerrak emateko manera naturala,
esaldi enigmatikoak eta
belarrira errezitatzen zenizkidan
poema ingenuo haiek.
Gehienez ere esango dute
hona hemen Homo Sapiens Sapiens,
harro egoteko moduko motibo bat balitz bezala.

GERNIKAKO ARBOLA

Hau zen nire Gernikako arbola guztia

Joxe Azurmendi

BERLIN

Eremulauei

Denok dugu Berlin bat gure baitan, bere mintzaira ulertezinekin, bere lurpeko pasadizo abandonatuekin. Denok dugu Berlin bat gure baitan, bere harresi eraitsiekin, erosotasunera eramaten gaituztenak, mediokritatea saltzen digutenak; bere harresi zatitzaileekin, tristezia eta oinaze aieneak isilarazten dituztenak, paternalista egiten gaituztenak. Denok dugu Berlin bat gure baitan, bere bele beltzekin, jakina. Nork ez dauka bere ekialdea, bere mendebala? Nork ez du desiratzen ekimendebala? Bonbardaketa guztiek ere ez dute gure baitako Berlin hori suntsituko, ez dizkigute gure utopiak zapuztuko, gure Tacheles partikularrak desjabetuko. Denok dugu Berlin bat gure baitan, bai, bere emakume eder eta maitagarriekin, garelarik ohartzen istanteko maitemina dela maitemin berdadero bakarra. Istantekoa den bezala agurra, istantekoak diren bezala, zergatik uka, oroitzapenak. Denok dugu Berlin bat gure baitan, Berlin bat

eta ez askoz gehiago, gure berreraikitze planekin, gure trazu guztietako biktimekin eta kabitu ere egiten ez zaizkigun hauen omenezko monumentuekin. Denok dugu Berlin bat gure baitan, aixkide, denok baitugu kontzentrazio-esparru bat gure baitan, denok dugu-eta judutar bat gure baitan, eta turkiar bat, eta errusiar bat, eta deskuidoan euskaldun bat ere bai, jakintzazu. Denok dugu Berlin bat gure baitan, U-Bahn, S-Bahn, bitte Friedrichstrasse, bitte. Denok dugula Berlin bat gure baitan, eta batzuek Berlin bat eta pare bat ipuin eta aitzakia, baina batzuek bakarrik amigo, batzuek bakarrik.

EGUN BATEK PRESA DUENEAN

Lagunak aulkietan bermatu dira isilik,
aitak esan dit: eta orain zer?
Ez naiz ausartu ortzemuga begiratzera,
ordu berean Washintongen emakume batek
«I love you» esan dio bere mutilari eta
Osakan Toyotako langileak bere buruaz beste egin
du
eta notatxoan jarri du ez zela gai
bere neskari «anata wo aisiteimasu» esateko.
Apaiza elizako ateak ixtean jabetu da
ez dituela atzera irekiko,
eta errezatzen hasi da, badaezpada.
Ruper kontzertua ematen ari den bitartean
Kirmenek kukuaren nota hori aurkitu du azkenean,
eta alkateak kondena solemne bat irakurri du,
atxikimendua izan da erabatekoa, ñabardura
gabekoa.
«Zeinen onak atera diren aurten laranjak!»
bota du etxekoandreak, senarra
telebista ikusten ari zen bitartean,

telebistari begira, telebista itzalita,
eta jabetu da ez diola entzun,
jabetu da ez diola zinez bere senarrari esan,
esan duela horrela, orokorrean,
senarrarena aitzakia bat dela,
aitzakia bat inork eromena leporatzen badio.
Errealak gol olinpiko horietako bat sartu du
eta ikusleek galdetu dute: eta orain zer?
Ameriketako presidenteak prentsaurrekoa eman du
baina ez da inor agertu, ez kamerarik, ez
kazetaririk,
inork ez daki zer arraio esan duen.
«Hitz polit bi zure aberriari»
eskatu diote aireportuan iheslariari,
«esaiezu herrimina, nostalgia»,
«esaiezu, azken batean, melankolia direla».
Mariak antzeko zerbait esan dio epaileari,
akituta zegoela, akituta bere ikasle horiekin,
gurasoekin, haien problema hutsalekin.
Bien bitartean, jende aldra abenidetan
semaforoak, trafiko seinaleak, errotik ateraz.
Festa giroa parlamentuan, «Aldapeko»
kantatzen diputatuak, kanona eginez,
lehenengo ezkerrekoak, gero eskuinekoak,

azkenik zentrokoak eta zentro-zentrokoak.
Zirkuko pailazoak poz dei geniezaiokeen
aldarte kurios horretan, eta domadoreak
galtzaile sentitu dira, zeharo galtzaile.
Tabernako eztabaidan, aldiz, buila gutxi,
baso hautsi gutxi, boutaderik apenas.
Patronalak lanuztera deitu du
ez dutela gehiago aginduko,
eta langileek galdetu dute: eta orain zer?
Harategian beti zenbaki bera ateratzen da
ticket-makina horretan, baina harakinak aitortu du
behi guztiak ero daudela, eta ondoren
Eusko Labelaz ez dagoela fidatzerik jadanik,
eta erosleek pentsatu dute: eta orain zer?
Eslovakiako txirrindulari bikainenak ere
onartu du EPOa hartu izana,
horrelaxe sentitzen zela libre,
aldapa luzeenak ere igotzeko kapaz.
Eta hau guztia
lurra izeneko planeta horrek
bira oso bat betetzen zuen bitartean,
inoizko lastertasun handienean,
bi minutu eta hamar segundo betean.

IKERKETAK

1933an ikusi omen zuten lehendabizikoz
Jon Mirandek zortzi urte bete zituen egun berean.
Hamilton anderea izan zen lehena.
Urtebete geroago Peter Grant izeneko ikasleak
lakutik irteten ikusi zuen, bere motor gorri
berriarekin paseoan zebilela.
Lanbro eta mendi artean bizi omen da.
Azken urteetan hainbat ikerketa egin dituzte
baina oraindik ezin izan dute egiaztatu
zinez existitzen den ala ez.
1954an sonar batek detektatu omen zuen,
baina zalantzak ez ziren uxatu, akaso
beste zerbait izango baitzen detektatutako hori.
1969an submarino batek bilatu zuen
ezer kausitzera iritsi gabe.
1974an Robert Rine izeneko zientzialariak
bere kamera infragorriaren bidez
berau fotografiatzea lortu zuela adierazi zuen.
1991n Stewart Campbellek amets eta
itxaropen guztiak zapuztu zituen ia,
ikerketa sakon baten ondotik

halako izakirik existitzen ez dela esan zuenean.
Eskerrak, hala ere, guk gaurkoan hemen dugun.
Hamaika espekulazio eta ikerketa ondoren
hementxe duzue zuen aurrean.
Ladies and gentlemen, zuekin,
(teloia zabaltzen da)
Euskal Herria.

GABRIEL ARESTI BIZIRIK DA

Batzuen arabera Elvis bizirik dago
eta faltsua da 1977ko abuztuan
Graceland-en hil zena.
Bob Dylanek ere badaki hori,
nahiz eta ezkutuan mantentzen duen.
Jim Morrison ez omen zen zendu,
bizirik da oraindik, hor, hortxe bertan.
Baina esango nuke hala balitz
enteratuak egongo ginela honezkero.
Nik, ordea, badakit
Gabriel Aresti bizirik dela.
Gabriel Aresti astelehenetan
Batasunako militantea da,
ETArena ez zaio guztiz ondo iruditzen baina
Euskal Herriaren independentziaren alde dago.
Astearteetan PSOEkoa da, EEko militante ohia,
ez du jada Aberri Egunean xanpainik edaten.
Asteazkenetan EAJkoa da,
ezin dira horrenbeste txinatar oker egon beti.
Ostegunetan EBren alde egiten du,

Madrazo ez zaio gehiegi gustatzen
baina zer egingo zaio,
bera beti paratuko da gizonaren alde.
Ostiraletan EAk betetzen du gehien,
ez daki sozialdemokrazia klasikoaren
edo hirugarren bidearen alde egin behar duen.
Larunbatetan noizean behin Aralarrekoa,
baina batez ere PPkoa,
sekretuan mantentzen duen arren.
Eta igandeetan,
igandeetan Gabriel ez da mezetara joaten.
Igandeetan libertarioa baita,
eta horregatik esaten duzue
Gabriel Aresti hilda dagoela.

ON DENOTING

Eiderrek liburua irekitzen du eta banan-banan hasten da marrazkiei izenak ipintzen. Amak lagundu egiten dio. Txoria; bai txoria. Trena, trena. Zuhaitza, zuhaitza. Gizona, gizona. Mot... Motorra, motorra da, brum-brum egiten du. Hau? Semaforoa, bere koloreak dira... berdea, horia, gorria. Oso ondo. Kotxea, kotxea. Hau? Zera esateko puntuan egon da: *Zipaioa, bere herriaren kontra egiten duen polizia prokolonialista. Berak sartu zuen osaba Felipe kartzelan*. Baina azkenean, ez daki ongi zergatik: «Ertzaina, Eider, ertzaina da hori».

BERMINGHAM KALEA, DONOSTIA

Bermingham kalean ez da droga
trafikatzaile gehiegi egoten,
ez dira heroinomanoen gorputz
zurbilak portalen babesean aurkitzen.
Bermingham kalean ez da istilu gehiegi gertatzen,
ez dira banden arteko liskarrak bertan ebazten,
ez dira labankadak ikusten,
ez eta tiro hotsak entzuten.
Iluntzean, bakea da nagusi Bermingham kalean,
ez dira prostitutak kale bazterrean paratzen.
Ez da hemen bizi Jack destripatzailea,
poliziek gutxitan patruilatzen dute kale honetan,
umeak trapuzko baloia hartuta
futbolean jolasten dira ondoko plazan.
Etxekoandreek erosketak egiten dituzte
merkatuan: piper berdeak, marrubiak,
patatak eta azaloreak erosten dituzte;
euren senarrak futbolaz mintzatzen dira
inguruko taberna lizunduetan.
Baina hala ere, hor dugu Migel

Bermingham kalean barrena
erradiografien estalki handia beso artean.
Mirenek ere bere nobio (zenaren) aurrean
adorea erakutsi duen arren, abaildu egin da
bere logelara bakarrik sartu denean.
Omarrek ez du gutunik aurkitu postontzian,
eta alboko postontzietan begiratzen aritu da
hutsegite bat egon delako itxaropenarekin.
Laurak sobera makillatu ditu gaur bere lotsaizunak.
Eta Violetak euren seme-alabak
non ote diren galdetzen dio bere buruari,
bakoitzak agindu baitzion astean behin etorriko
zirela,
turnoka-edo moldatuko zirela, egoteko lasai,
ez zutela agureentzako erresidentzia batera
bidaliko.

Eta denei ere, salbuespenik gabe,
huskeriak iruditzen zaizkie
telebista aurrean jarrita
Chinatownen edo Rio de Janeiron
jazotzen ei diren desgrazia ikusgarri horiek.

GURE BELAUNALDIA

Gure belaunaldiak ez du deus balio, gure belaunaldia Aginako zero bat da. Ezin izan ditugu gurasoak akabatu; etxetik alde egin, komuna hippie batera joan. Gure gurasoek ulertu egin nahi izan gaituzte, eurek lotutako txirriak erre ditugu, gure alde jarri, gure bandora pasa dira. Irakasleek ikastoletan heziketa teknika modernoenak erabili dituzte gurekin; jolasak egin ditugu, drogen inguruan mintzatu gara, larrutan egiten irakatsi digute ia. Gu iristerako Historia amaiturik zegoen eta Artea, berriz, gure aurrekoek hil zuten. Dena dago honezkero idatzirik, ez da existitzen eskola literariorik haien kontra joateko, baina hala ere ezin konta ahala literatur sari eta beka antolatzen dizkigute gure karrera literarioak promozionatzeko. Utopia eta ideologiek ere, bestetik, ez dute lekurik gaur egun. Gure belaunaldiko inor ez da eromenez, gosez akabatuko. Modelo eta futbolariek tatuajeak eramaten dituzte euren errebeldiaren erakusgai, C&A-k Che Guevararen irudia erabiltzen du udaberriko denboraldirako. Ez dugu katekesirik egin, ezin izan gara apaizen kontra oldartu. Lanean, Giza Balia-

bideen departamentuak laguntzen gaitu, langileek brainstormingak egiten ditugu enpresaren kudeaketa hobetzeko, sindikatuek babesten gaituzte euren konbenio kolektiboen bitartez. Gure belaunaldiak, gainera, ez du diktadurarik ezagutu, ez dugu demokrazia besterik bizi izan. Gure belaunaldiak erreklamazio orriak ditu eskura bere kexak bideratzeko. Gure belaunaldia...

URRUNEKO HIZKUNTZA

Urruneko hizkuntza batean
«zuhaitz» hitzak tristezia esan nahi du
«tristezia» hitzak loria
«loriak»k txorimalo
«txorimalo»k kuku
«kuku» esaten zaio epaitzeari
«epaitu» da hemen ikusi deitzen diogun hori
«ikusi» diotenean sorgindu esan gura dute
«sorgindu» diotenean laboratu
«laboratu» entzuten baduzu sinetsi uler ezazu
«sinetsi» entzutean baloi
«baloi» entzunda gizen
«gizen» erabiltzen dute exodoaren ordez
«exodoa» da beraientzat
guk denbora neurtzeko erabiltzen dugun gailua

Baina han ez dute epailearen aurrean
hizkuntza horretan hitz egiteko batere oztoporik
urruneko lurralde hartan ez dituzu «diglosia»
edo «normalizazioa» bezalako hitzak entzungo
ez dituzte euren hizkuntzaren aldeko

jaialdi erraldoiak antolatzen
han ez dago inor hizkuntza horren alde
ez dituzte irrati eta egunkariak zigilatzen

Urruneko hizkuntza hartan
«hizkuntza» hitzak hizkuntza esan nahi du

NEW YORK, NEW YORK

Standing in the corner suitcase in my hand
autobusa ez da iristen eta alboko emakumeak
begi-bazterraz begiratzen nau, irribarre melengaz.
Atzo Dorre Bikiak eta auskalo
zenbat dorre isolatu erori ziren.
Orain euria zintzilik dago zeruan,
baina zer nahi duzu ba,
hau New York da, jendetzaren hiria,
garajeak kotxeen patrimonio ez diren mundua.
Negriren hiria ote?
Hau ez da Seattle,
hemen rock & rolla egiten denean
hip hop-a dantzatzen da
eta mass media boikoteatzen (!!!).
Dizze Rascalek bi eskuko
Master System-ak saltzen ditu.
Hau ez da edozer gauza,
hemen merkatuak agintzen du inon ez bezala;
hemen merkatua pikutara joan daiteke
New Yorkek hala nahi badu
eta inolako hauteskunde

demokratikoren beharrik barik.
Eguzkitako betaurrekoak jarri
suitcase in my hand
eta munduko gobernadore
izan zaitezke 15 minutu luzetan.
15 minututan suntsi daitekeelako mundua
4 bat aldiz gutxienez,
15 minututan konpondu daiteke mundua
lipar baterako bakarrik.
New Yorken 15 minutu
900 segundo eta askatasun apur bat dira.
12 minutu 37 segundo eta 35 ehuneko
behar izan zituen behin Kenenisa Bekelek
5000 metro korritzeko, eta oraindik
bi minutu t’erdi soberan geratu zitzaizkion
I’m lovin’ esateko 547 alditan, etengabe.
Eta beste egun batez, Kenneth Kochek
zulo handi bat ikusi zuen New Yorkeko zeruan
eta ez zen ozonoa, ketanoa,
Objektu Hegalari Ezezagun batek
eragindako efektu optikoa.
New York ez da broma bat.
Autobusak berandu iristen dira
baina ez zaio inori axola.

Hemengo jendea
denbora alferrik galtzearen alde dago,
hemengo jendeak
ez daki zer pintatzen duen New Yorkek
unibertsoko bazter honetan,
domino efekturik existitzen ez den toki honetan.
Edward Hopper, Don DeLillo, Michael Jordan
hiri honetan jaio dira,
Marx anaiak bezala, edo Walt Whitman,
kale laranjan, inoizko poemarik bikainena
New York bera dela aldarrikatuz;
ze New York izan daiteke zuria
beltza
gorria
berdea
horia
bioleta (gutxitan).
Entzun, inoiz bihotzik eduki duzuenok,
New Yorken barkamena eskatzea ez da bertute,
ez tematu mundua graffitiz pintatzen,
New Yorken ez dago «Welcome to NY»
jartzen duen afixarik, argizko iragarkirik.
New York behin bakarrik gertatzen da bizitzan
15 minututan, ordu laurdenean.

Hilda Doolittle, ez izan lotsarik
hormak erori eta erori ari badira,
jendeak 60. pisutik jauzi egiten badu,
ez da zure errua.
Standing in the corner Bob Dylan ikusi dut
geltoki ondoko McDonald’s-ean
boligrafoz hitzak idatzirik dituzten
serbilletak lurrera botatzen,
Chan Marshall du aurrez aurre,
emakume ona izatearen inguruan teorizatzen.
Taxistek, taxi horietan, jakinarazi didate
aireporturako hiru autobus hartu behar ditudala,
baina alboko emakumeak erantzun die nire partez
eta ea taxista «tax»-etik ote datorren galdetu.
Edozer gauza da posible hiri honetako
abenida eta kalezuloetan,
baina hemen ez dio inork Mariah Careyri
titiak erakuts ditzan eskatuko.
Eta anabasa honetan inork zoria aipatzen badu
William James azalduko da suitcase in his hand
eta konspirazioaren teoriaren aldeko proklamak
eginez.
New Yorkek ez du deliberatzen
zerura ala infernura joango zaren,

ez da paternalista batere, ez du gaztigatzen deus,
baina ez die barkatzen euren poemetan
New York aipatzen duten poeta bentajistei
(NY bera da inoizko poemarik bikainena!).
Pinpirina da, ondo zaintzen du bere *skyline*-a.
Akaso Federico Garcia Lorca
agertuko zaizu bertan bals bat dantzatzen
zibilizazioaren alde baina dantzalagunik gabe.
Edota beltz bat English B
ikasgairako idazlan bat izkiriatzen.
Hau ez da bluesaren hiria, hau ez da Memphis.
New Yorken Nuyoricanoak bizi dira,
Slam! oihukatzen dute, Slam! Slam!
New Yorken ilargia destoki sentitzen da
gauero, arrotz.
Izarrek kariño pixka bat eskatzen dute
kariño pixka bat, bederen.
Bon, orain Jane joana da.
Autobusa ez da agertu.
Biziki maite dut New York,
biziki amorrarazten nau New Yorkek.